

Era guztietako errugbia ikusgai

Hego Afrika txapeldun dela, gaur hasiko da Mundiala, bi partidarekin

Koldo Alduntzin / Edimburgo

Berriemaile berezia

NORGEHIAGOKA birekin jarriko da jokoan IV. Munduko Kopa gaur: Gales - Argentina (Cardiff 15:00) eta Fidji - Kanada (Beziers 21:00). Hilabete pasatxo iraungo du mundialak eta azaroaren seian ezagutuko dugu txapelduna.

Lehen aldiz hogeitasei talde lehiatuko dira. 1987an, 1991an eta 1995ean hamasei aritu ziren. Beraz, sailkapen fasea ere berezia izango da. Lau taldeko bost multzotan ariko dira hogeitasei taldeak eta aurreneko sailkatuak soilik lortuko dute final laurdenetarako sailkatzea. Ondorioz, gainerakoek baino atsedeen gehiago izateko aukera izango dute, bigarren sailkatuek eta hirugarren onenak kanporaketa jokatu beharko baitute.

Bestetik, irabazitako partidagatik hiru puntu jasoko dira, berdintzeagatik bi eta galtzeagatik bat. Sailkapen fase honetan Gales-Argentina, Eskoziak-Hego Afrika, Samoa-Japonia, Ingalaterra-Zelanda Berria eta Irlanda-Australia nabarmenduko genituzke. William Webb Ellis izeneko kopa honek dopin kontrola ere ekarri du eta jokalarien %50ak pasea du kontrola iritxi bezain pronto. Partida bakoitzean talde bakoitzeko bi jokalariri egingo zaie.

Aurreko hiru ekitaldiei gainbegiratu emanda 1987koa Zelanda Berrian jokatu zen eta All Blacks-ak gailendu ziren Frantziaren aurka 29-9. Hirugarren Gales izan zen. 1991an Europan jokatu zen, Ingalaterra izan zen egoitza nagusia eta Australiak eraman zuen kopa, finalean 12-6 irabazita. Hirugarren Zelanda Berria sailkatu zen. 1995ean, berriz, Hego Afrikan jokatu zen eta Spring Books-entzako izan zen, finalean Zelanda Berriari 15-12 irabazi ondoren. Hirugarren Frantzia izan zen.

Hasiera ekitaldi xumea

Ortzadarraren irudi liluragarriekin agurtu genuen Euskal Herria atzo goizean. Zarautz parean atzeman ge-



ARTXIBOKOA

Zelanda Berria eta Australia Mundiala irabazteko faboritoen artean dira.

Galesek bere aukera du

■ AURREKO hiru kopetan antolaketaren ardura zuen nazioa gutxienez finalean aritu da. Galesek gauza bera lortzen badu, litekeena da final aparta eskaintzea. Hala ere, lehendik Australia menderatu beharko lukete galestarrek. Zelanda Berriko Graham Henri da taldeko entrenatzailea eta talde orekatua lortu du kostata izan bada ere. Egun edozein talderi aurre egiteko gai dira galestarrek eta munduko jaurtitzailerik onena daukate, Neil Jenkins. Bost Nazioetako Torneoan kon-

fidantza lortu zuen Galesek, Ingalaterra menderatuta. Gero Hego Afrikari irabazi zion.

Argentinari dagokionez, beti dira arriskutsuak Pumas, orain dela gutxi Eskoziak eta Irlandaren kontra jardun zuen eta baita neurria eman ere. Hala ere, galestarrek hiru aldiz segidan menderatu dute Argentina eta horietatik bitan Argentinan bertan. Hegoamerikarrak oso aitzin multzo indartsua du, baina jokoan gorantz doaz, nola baloiak lortzen, hala jokoaren antolaketan.

nuen lehenik, baina Sondikan are koloretsuago zegoen, alde batetik beterainoko arkua osatuz, zaparrada bat edo beste tartean zela. Ostadar koloretsu eta paregabea zen zinez. Eguerdian helduta, Londresek agurtu gintuen zero estali eta hodeitsuarekin eta antzeratsu Cardiffen arratsaldean, Ostadar koloretsurik gabe, alegia. Gaurtik azaroaren 6a

arte, ordea, ostadar kolore biziak errugbiak hartuko du, gaur hasiko den IV. Munduko Kopa, hain zuzen ere.

Meloi itxurako baloiaren atzetik jardungo dute beltzez jantzitako zelandar maoriek, berdez jantzitako Spring Books-ak ere, baita urdinez azalduko diren Samoa, Italia, Frantzia eta abar. Ikusterik izango ez duguna txuri-gorri berdea, gurea alegia, euskal-

Fidji-Namibia: alde handia bien artean

■ FIDJI ITALIAKO L'AQUILA torneo irabazi zuen orain dela hiru aste, eta Italia 50 puntuko aldearekin menderatu zuen. Beraz, bistan da Namibia baino indartsuagoa dela. Fidjik ere Zelanda Berriko entrenatzaile baten eskutik diardu, eta horri esker dexente indartu du defentsa, izan ere Fidjik oso joku erasokorra eta berezia egiten zuen, baina halber, puntu asko jaso ere bai. Hurrengo kontrarioa Kanada izango du, eta hori beste talde bat izango da.

Namibiak, berriz, lehen mundiala du. Vodacom Ko-

pan, hau da, Hegoafrikako nazioen arteko bigarren mailako txapelketan, lau partidetatik bat soilik irabazi zuen. Gero, joan den udan, Harlequins-en kontra bi partida galdu zituen eta soilik Zimbabwe gaildutu zuen -ez da kanporaketarako sailkatu- gainera tirabira haundiak sortu dira eta krisia pairatzen ari da, arrazakeria dela medio. Horrek lehendakaria eta entrenatzailearen kargua uztea eragin zuen. Beraz, azkenaldian lan handia egin badu ere, ikastera joan da Frantzia aldera Namibia.

dunona. Beste lau urtez itxaron beharko dugu, baina zorionez, badira zazpi euskaldun eta haiekin moldatu beharko dugu. Gaur hasiko da Mundiala Gales-Argentina eta Frantzia-Fidji, beraz ez dute estrinakoan aritu beharko euskaldunek.

Milurteko istorio berriak hartuko du hasiera ekitaldia eta lehen partida. Ez du orain lau urte Hego Afrikan izan

zuenaren parekotasunik izango, askoz xumeagoa izango da ekitaldia, oren bat iraungo du ordubetan hasita eta hauek parte hartuko dute ekitaldian: Shirley Passet abeslaria eta Brian Tercel tenorea, Cardiffeko korala eta Catalonia pop taldea. Glamour Griffiths-en -Kopako zuzendaria- hitzaldia eta ondoren Gales-Argentina partidua.